BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

863

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntzako proiektuan parte har dezaten diru-laguntzak emateko dena.

Kontuan harturik zer dioen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 15eko Aginduak (agindu haren bidez dei egiten zaie itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, parte har dezaten baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntzako proiektuan), aurkeztutako eskabideak eta ebaluazio-batzordearen proposamena aztertu ondoren, eta deialdia egiten duen Aginduaren I. eranskinean jasotako baremoa aplikatuz honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondorengo itunpeko ikastetxeei honako diru-laguntza hauek ematea, kasuan kasurako zehaztutako zenbatekoetan:

Ikastetxea	Diru-laguntza
Euskal Herriko ikastolak Sociedad Cooperativa Europea	147.000
Kristau Eskola Elkartea. Donostia	120.000
Irakaskuntza Zentroen Elkarte Autonomoa (AICE-IZEA)	17.200
Lauaxeta ikastola	2.150
Vizcaya ikastetxea irakaskuntza kooperatiba	2.150
San Felix Cantalicio ikastetxea	2.150
Urkide ikastetxea	2.150
Politeknika ikastegia Txorierri	2.150
Colegio del Sagrado Corazón-Carmelitas de la Caridad. Bermeo	2.150
Begoñazpi ikastola	2.150
San Pelayo ikastetxea	2.150
Barakaldo irakaskuntza kooperatiba – El Regato	1.800
Basauri ikastetxea irakaskuntza kooperatiba	1.800

Bigarrena.– Honako itunpeko ikastetxe hauek egindako eskabideei ezezkoa ematea, zehaztutako arrazoiengatik:

Ikastetxea	Arrazoia
Sagrado Corazón-Carmelitas de la Caridad ikastetxea. Vitoria-Gasteiz	2.2 artikulua
San Bizente ikastola S. C. L.	2.2 artikulua

Hirugarrena.– Ikastetxe onuradunei eman beharreko diru-laguntzak bi epetan ordainduko zaizkie:

a) Lehendabizikoan, hautatutako parte-hartze proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 57,38; zenbateko hori esleipen-ebazpena jakinarazi, eta, gehienez, bi hileko epean ordainduko da.

b) Bigarrenean, gainerako % 42,62a, deialdi-aginduaren 15. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den justifikazio-dokumentazioa dagokion epean jaso ondoren.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 30a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.